Lopez de Bergara kanporatu ez dezaten protestak egingo dira

28 egun bete ditu gose greban Uzercheko presondegian

Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek Iñaki Lopez de Bergara presoa Frantziako Estatutik Espainiakora kanporatu dezaketela ohartarazi zuten atzo. 28 egunez ari da gose greban kanporatzearen aurkako jarrera azaltzeko, eta dagoeneko 19 kilo galdu ditu. Datorren urriaren 10ean kanporatu dezakete, eta horren kontra mobilizazioak antolatu dituzte.

K. Eiguren / Gasteiz

IÑAKI LOPEZ DE BERGARA Espainiaratzen badute, torturatuko duten arriskua dagoela salatu zuten atzo Senideek eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek. Lopez de bergara Estatu Frantseseko Uzercheko kartzelan dago preso, eta 28 egunez gose greban ari da Estatu Espainiarrera bidali ez dezaten. Grebaren ondorioz, 19 kilo galdu ditu, dagoeneko. Urriaren 11an bukatuko du Estatu Frantsesean ezarri zioten kartzela zigorra, eta nahiz eta Estatu Espainiarretik estradizio eskaririk ez dagoen, mugara eramango duten arriskua aurreikusten dute bi erakundeek. Kanporatzea urriaren 10ean gertatu daitekeela uste dute, 11a igandea baita.

Legutioko presoak Estatu Espainiarrean jasan ditzakeen torturak salatzeko, Senideak eta AABek urriaren 9tik 10era arteko gaua Gasteizko Polizia Nazionalaren komisaldegiaren aurrean igarotzea proposatu dute. Urriaren 9an gaueko hamarretan hasi eta 10ean goizeko zortziretan bukatuko da kontzentrazio isila.

Honekin batera, manifestaldia deitu dute larunbaterako. Gasteizko Bilbo enparantzatik aterako da arratsaldeko zazpietan.

Lopez de Bergarak dagoeneko azaldu du kanporatua izanez gero ez duela inolako deklaraziorik egingo Espainiar Poliziaren aurrean. Beraz, aitormenik eginez gero, poliziek mehatxu eta torturen bidez behartuta izango dela ohartarazi zuten Senideak eta AABeetako kideek.

Hauen ustez, «egunotan asko hitzegiten ari da Lizarrako Adierazpenaz, baina gutxi bere edukiaz». Hitzarmen honetan errepresio bideen baliorik eza aipatzen dela gogoratu zuten; ondorioz, kanporatze eta torturen estrategiak zuzenean jotzen duela Lizarrako espirituaren aurka eta beraz, «herri honen gehiengoak erabakitakoaren kontra».

Senideak eta AABko kideek mobilizazioak iragarri zituzten atzo.

JOSEBA OLALDE

Lopez de Bergararen kanporatzea saihesteko, hainbat elkarrizketa izan dituzte AABek eta Senideetako kideek. Hauen artean, alderdi politikoekin bildu dira, eta EAJ, EA, HB eta IUk lan egiteko konpromezua luzatu diete. Bestetik, Estatu Frantseseko kontsularekin, Aratekoarekin, eta Gasteizko Gotzainarekin bildu dira, besteak beste.

Paris-Venezuela-Madril• Lopez de Bergara 1987ean atxilotu zuten lehen aldiz Ipar Euskal Herrian. Frantziak Venezuelara deportatu eta handik hiru astera han atxilotu zuten, berriz itzulian Frantziara bidaltzeko. Paristik, berriz, Espainiaratu egin zuten, espainiar polizien eskuetan uzteko. Garai hartan, «tortura basatiak» salatu zituen gazte arabarrak.

Hiru urtez espainiar kartzeletan egon ondoren, 1990 urtean errefuxiatu zen, hiru urte geroago Mertignac bretainiar herrian atxilotu zuten arte. 1995ean Parisko Auzitegi Korrekzionalean jujatua, sei urteko presondegi zigorra beteko du Uzercheko espetxean.

Gureak eta EPSK Iparraldeko taldeek hainbat gestio egin dituzte Espainiaratzea eta tortura arriskua baztertzeko. Gaur OIP eta Amnesty International taldeekin biltzekoak dira. Parisko Justizia Ministerioak, berriz, ez du hitzordurik onartu. ✗

Altzako erasoa leporatu diete atxilotutako gazteei

Beste sabotaje batzuetan izan dezaketen partehartzea ere ikertzen ari da Ertzaintza

Erredakzioa / Donostia

ERTZAINTZAREN esku jarraitzen dute Donostian atxilotutako Gotzon Beloki, Eneko Osanbela, Aitor Garcia eta 16 urteko I.T. gazteek. Beloki, Osanbela eta Garcia Altzako PSOEko egoitzaren kontra egindako erasoarekin zerikusia zutelakoan atxilotu zituzten astearte goizaldean, Espainiako Entzutegiaren aginduz. Adin txikiko I.T. berriz, astearte eguerdian atxilotu zuten, bezperako atzemateak salatzeko egindako manifestazioaren amaieran. EAEko Herrizaingo Sailaren arabera, manifestazioa bukatutakoan banketxe baten kontrako erasoan parte hartu zuen koktel molotovak erabiliz, eta ikertzen ari dira Altzako erasoan berak ere parte hartu ote zuen.

Bien bitartean, zabalik jarraitzen du PSOEren Altzako egoitzari su eman ondoren Ertzaintzak irekitako ikerketak, eta atxiloketa gehiago egon daitezkeela iragarri du EAEko Herrizaingo Sailak. Beloki, Osanbela eta Garciak beste sabotaje ekintza batzuekin izan dezaketen zerikusia ere aztertzen ari da polizia autonomikoa.

Amnistiaren Aldeko Batzordeen arabera, azken atxiloketekin argi ikusten da Ertzaintzak «obsesionaturik jarraitzen duela euskal gaztediaren kontra, hauek jarraituz eta zigortuz». Poliziaren esku jasotzen ariko diren tratuaz «kezkaturik» azaldu ondoren, inkomunikazioa kendu eta atxilotuak Donostiako Guardia Epaitegira lehenbailehen eramateko eskatu dute, Espainiako Entzutegiak «ez dituelako haien eskubideak bermatuko». ✗

Gose greba mugagabea hasi dute Palentzian

Juan Carlos Arriaga presoaren bakartzea amaitzeko eskatzen dute euskal presoek

Erredakzioa / Donostia

PALENTZIAKO Dueñasko kartzelan dauden euskal presoek gose greba mugagabea hasi zuten atzo, Juan Carlos Arriaga Iruñeko presoa bakartze ziegatik atera dezaten eskatzeko. Arriaga duela hilabete Dueñasko espetxera eraman zutenetik bakartuta dago, nahiz ez dagoen zigortuta. Arriaga bakartzetik ateratzeko protesta egiten badute, gainontzeko euskal presoak ere bakartu egingo dituela mehatxu egin die kartzelako zuzendariak, presoek diotenez. Kartzela honetan dauden euskal presoak Juan Carlos Arriaga, Anjel Rekalde, Mario Artola, Iñaki Gonzalo eta Unai Idoiaga dira.

Bestetik, Almeriako eta Zaragozako kartzeletan protestek jarraitzen dute. Almerian Koro Egibar eta Jon Bitoria presoek hartu dute txandakako 15 eguneko gose greben lekukoa. Zaragozan, berriz, Juan Mari Fernandez Perez de Nanclares presoak hartu du txanda. Kartzela horretan 15 eguneko itxialdiak egiten ari dira presoak. Txandakako protestaldi hauekin, presoen Euskal Herriratzea eskatzen dute. ✗

Euskaldunok gurea
EUSKALERRIA IRRATIA
euskarazko gure irratia
MANIFESTAZIOA
Urriak 3
Arratsaldeko 5etan
Autobus Geltokian
euskalerria irratia FM 91.4 irunerria